



Abenduaren setik gora egingo da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. RAUL BOGAJO / ARCAZOKI PRESS

Argizaiola saria, Maiatzi

Abenduaren setik gera egingo da Durangoko 42. Azoka, eta umorea izango da ardatza

ZUBEROA ITURBURU

Ipar Euskal Herriko elkarte bati emango diote lehen aldiz Argizaiola saria Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan. Maiatzi, hain zuzen. Durangoko Gerediagako elkarrekin urtero eman ohi duen sariarekin «Maiatzek euskararen alde musu truk egindako lan garrantzitsua» nabarmendu nahi du, Jon Irazabal azokako zuzendariak azaldu duenez: «Iparraldean laguntza gutxiago dute, gainera, eta meritu handia da hainbeste urtetan argitaletxe txikia mantentzea». Aurtun 25 urte bete dira *Maiatz* aldizkariaren lehen alea argitaratu zutenetik.

Beste garai batzuetan pertsona

edo erakundeek euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana goraiatzeko du elkarrekin. Abenduaren 8an egingo dute sari ematea, San Agustin kulturunean. Azoka, berriz, abenduaren 5ean zabalduko dute eta umorea izango du ardatz. Andoni Agirregomez korta aktoreak egingo du Durangoko 42. Azokako sarrera ekitaldia.

«Umoreak leku gutxi dauka gauegun, eta beharrezkoa dugu», esan du Irazabalek. Horregatik, present izan nahi dute azokaren bost egunetan, «umorerik gabeko herria gorringorik gabeko arrautza delako».

Iaz baino sei bat erakusmahai gutxiago jarriko dituzte: 317. Horrela, jende pilaketak ekidin nahi dituzte. 161 parte-hartzaile izango dira, eta iaz baino 194 lan berri gehiago ekarriko dituzte, 554 ekoizpen berri bilduko baitituzte: 395 liburu, 74 disko, 11 partitura, 18 aldizkari, 23 bideo-DVD, 9 argitalpen elektronikoki eta bestelako 24 lan. Aurtun, Egunkariaren Aldeko

Elkarrekin ere erakusmahaiak jarriko du, auziaren berri emateko.

OMENALDIAK. Eva Forest idazle eta argitaratzailea, Jesus Atxa euskaltzalea eta Gerediagako Salvador Solaei omenduko dituzte azokan. Aurtun zendu dira eta ekitaldi xume batean gogoratuko dituzte abenduaren 7an, 19:15ean, Elkartegian. Irakurketa batzuk eskainiko dizkiete, eta euren lana erakutsiko dute. «Aurreko belaunaldien lana ez dago ahaztuta, eta goraiatu behar dugu», adierazi du Jon Irazabalek.

Aurtun Georgia izango da herrialde gonbidatua, eta mahai-inguru batekin ekarriko dute hango literatura Durangora.

Olentzero ere izango da azokan, igandean, abenduaren 9an. Azokan, haurrek gutuna idatziko diote umeen txokokoan—aurtun handi dute—, liburu edo diskoren bat eskatzeko. Olentzerok bat aukeratu du iritzira, eta haur horrek etxean jasoko du eskatutakoa.

■ egitaraua

Abenduak 5

- **12:00.** DJ erakusketa parte-hartzailea, Oleakiff-en eskutik.
- **18:00.** *Urtebete itsasargian* liburuar buruzko berriketaldia Miren Agur Meabe idazlearekin. Haur literaturako aretoan.
- **19:00.** Azokaren inaugurazioa ofiziala. Sarrera ekitaldia, Andoni Agirregomez kortarekin.

Abenduak 6

- **12:30.** *Oroimenaren lapa*, Fredi, Xabier eta Itxaso Paia neba-arrebek eta Unai Eloorriagak egindako bertso musikatuaren ikus-kizun berria.
- **20:30.** Antzerki estreinaldia: *Sommer jaunaren istorioak*. Txalo produktzioak. San Agustin kulturunean.

Abenduak 7

- **12:00.** Film emanaldia: *Kutsidazu bidea*, Ixabel.
- **16:00.** Aurkezpena: *Une iraunkorrek* diskoa. Su Ta Gar.
- **17:30.** Aurkezpena: *Desafectos*. Francoren esklaboak Pirinioetan eta 13M. Atocha, El Pozo, Santa Eugenia... Donibane DVDak. Eguzki Bideoak.
- **20:30.** Aurkezpena: *Katamalo* diskoa. Bihotz Bakartien Kluba.

Abenduak 8

- **11:30.** Aurkezpena. *Euskara madre del castellano y de los romances* liburua. Euskararen Jatorria Kultur Elkartea.
- **12:00.** *Georgiatic hizlari*: Tamar Ebrilidze, Nugzar Tsiklauri eta David Turashvili idazleak. 2007ko Durangoko Azokako gonbidatuak.
- **18:30.** Mahai-ingurua: *Hemen jaun-goikoari ere barre*. Imanol Lazkano eta Pello Zabala. Moderatzailea: Juan Kruz Lakasta.

Abenduak 9

- **12:00.** Aurkezpena: *Euskal Herri berri-ara eraikuntza estatala* liburua. Lemuria kultur elkartea.
- **12:30.** *Jak zazpi*. Piarres Xarritonen hitzaldia, Gratien Adema *Zaldubay* [1828-1907] idazle eta olerkariaren mendeurrena dela eta.
- **19:30.** Amaiera ekitaldia: Olentzeroren bisita.

HILBERTIA



Bizitza osoa zinema munduan

Izena: Fernando Ferman Gomez. **Jaiotze data:** 1921, Lima (Peru). **Ibilbidea.** Zinemagilea, aktorea eta idazlea.

Aktore, zinemagile eta idazle gisa ezaguna izan da Fernando Ferman Gomez. Berrehun filmetan baino gehiagotan parte hartu zuen eta haren aldarte petralak zeresan handia izan zuen jendartean. 86 urterekin hil zen, atzo, Madriden (Espainia), bihotzeko hutsegitearen ondorioz. Haurra zenetik oholza gainera igotzea gustukoa izan zuen, baita kameraren artean ibiltzea ere. Antzerki talde ugarietan parte hartu zuen gaztaroan, filosofia ikasketak amaitzen zituen bitartean.

La venganza de Don Mendo, *El espíritu de la colmena*, *El abuelo*, *Mamá cumple cien años*, *La colmena* eta *La lengua de las mariposas* filmak daude Fernandezek egindako filmen zerrenda luzean. Goya sari gehien jaso duen aktorea da. ■

AMAIHELIZONDO

Berri Txarrak taldeak 'Zertarako amestu' DVDa plazaratuko du

MUSIKA ■ *Zertarako amestu* DVDa aterako dute Berri Txarrak taldekoek abenduaren 5ean. Bertan, Gernikako (Bizkaia) Astra aretoan emandako kontzertua ikusi ahalko da. *Jaio. Musika. Hil* birako irudiak ere bildu dituzte.

Leo Bassiren emanaldia eragozteko eskaerak jaso dituzte Elgetan

ANTZERKIA ■ Elgetako (Gipuzkoa) Udalak berrehun mezutik gora jaso ditu Leo Bassi antzerkigileak abenduaren 1ean Espaloia kafe antzokian egingo duen ikuskizuna (*Instintos ocultos*) bertan behera uzteko eskatuz. Udalak, baina, ez du inongo neuririk hartuko.

ANDOAIN



“SANTA ZEILIA ZIKLOA”
Pello Ramírez
“Haize Oihalak”

Azaroak 24
20:00etan

Ekitaldi Aretoan
Doan



Etorri aurretik gonbidapena hartu.
Informazio gehiago: 943-30 35 40



ANDOAIN UDALA

ANDOAIN

“SANTA ZEILIA ZIKLOA”
Pablo Soroazabal Haize Bostekoa
“Haize Dantzak”



Azaroak 23
20:00etan

Ekitaldi Aretoan
Doan



Etorri aurretik gonbidapena hartu.
Informazio gehiago: 943-30 35 40



ANDOAIN UDALA